BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# Burdinolen ibilbidea barria izango da aurten Enkarterrietako Museoaren XX. urteurrena dala-ta

Abellanedan, 2014ko urriaren 21ean

Datorren domekarako, urriaren 26rako, Enkarterrietako Museoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek "Burdinolen ibilaldiaren VI. Edizinoa" antolatu dabe. Museoa zabaldu zanetik 20 urte beteten diranean, antolatzaileek ibilbide barria prestatu dabe oraingoan, aurreko urteetan egindako osatzeko. Kultur ibilbide horrek leku urbanoak eta urbanoak ez diranak buztartuko ditu eta Cadagua ibaian zehar dagoan garai eta estilo ezbardintako ondarea ikusteko balioko dau.

Ibilaldia goizeko 9:00etan hasiko da Sodupeko La Conchita enparantzan. 25,5 kilometro izango dira guztira, eta jan-edateko leku bi prestatu dira, bata Zallako Bolunburu parkean (izen bereko burdinola ikusgarriaren ondoan) eta bestea Balmasedako udaletxean. Ibilbidea amaitutakoan, aukera egongo da autobusez joateko helmugatik (Enkarterrietako Museotik) urteera izan dan lekuraino (Soduperaino).

Enkarterriko ibai eta errekarik gehienetan egon ziran burdinolak, baina Cadagua ibaian egon ziran gehien-gehienak. Ibilbideak ez dauka ia-ia aldatzik eta eskualdeko burdina landu zan lekuetatik zehar joango da. Burdinolon artetik, oraindik orain aztarnak ikusi leitekez Zallako Bolunburukoak, aisialdirako parketzat egokitutako lekuan, eta La Mellako burdinolaren aztarna nabarmenak (ubidea eta presea). Bigarren hori be Zallan dago eta orain mende bat zentral hidroelektriko bihurtu zan. Eta azkenik, Baldasedako La Minbrera burdinola be ikusteko aukerea egongo da.

Baina burdina lantzeko leku horreez ganera, beste leku interesgarri batzuk be bisitatuko dira. Ibilbidean zehar baserri eta torretxez jositako toki apartak igaroko dira (Gueñesen Bolibar, Anieto, Errekalde, Aperzibite, Santxosolo edo Barretaguren; Zallan Aretxaga, Ibarra, Bolunburu edo La Herrera-ijalde) eta horreek buztartu egingo dira toki urbanoagoak eta industrializatuak diran beste batzukaz: Sodupe auzoa bera (Gueñes), Zallako erdigunea (Mimetiz) edo Aranguren auzoa (Zalla).

Inskripzinoa doan da eta gehienez be 500 pertsona onartuko dira. Izen-emotea Enkarterrietako Museoaren webgunean dagoan esteka sakatuta egin leiteke edo 946504488 zein 946104815 telefonoetara deituta.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# El Museo de Las Encartaciones diseña en su XX aniversario un nuevo recorrido para la ruta de las ferrerías

Abellaneda, a 21 de octubre de 2015

El próximo domingo, 26 de octubre, el Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia celebrarán la VI edición de la Ruta de las Ferrerías. Coincidiendo con los 20 años del nacimiento del centro encartado, los organizadores han optado por diseñar una nueva ruta que complete el recorrido de años anteriores y el conocimiento del mundo de las ferrerías. Un recorrido diseñado para todos los públicos que aunará lo rural y lo urbano, y que permitirá averiguar el patrimonio de diferentes épocas y estilos a orillas del Cadagua.

La ruta comenzará a las 9 de la mañana en la plaza de La Conchita de Sodupe. El recorrido de 25,5 kilómetros contará con dos avituallamientos; uno en el parque de Bolunburu (Zalla) junto a los restos de la fantástica ferrería del mismo nombre, y otro en el ayuntamiento de Balmaseda. El Museo brindará a los participantes la posibilidad de volver en autobús desde el punto de llegada, el Museo de Las Encartaciones, hasta el de salida (Sodupe).

La práctica totalidad de cuencas fluviales de Las Encartaciones acogieron ferrerías, aunque fue, a orillas del río Cadagua, donde se concentraron el mayor número de estas instalaciones. La ruta a pie, prácticamente llana, seguirá los vestigios de las pequeñas fábricas que forjaron el hierro en la comarca. De todas ellas, se conservan restos de la ferrería de Bolunburu, en Zalla, enclavada en un espacio convertido en parque de recreo, y reliquias patentes de la ferrería de La Mella (canal y presa), también en Zalla, convertida hace un siglo en una central hidroeléctrica; o de la ferrería de La Mimbrera, en Balmaseda.

A los restos de instalaciones dedicadas a trabajar el hierro, se unirán otros puntos de interés. El camino mezclará lugares rurales con sus caseríos y torres de enorme atracción (en Güeñes: Bolibar, Anieto, Errekalde, Aperzíbite, Santxosolo o Barretaguren; en Zalla: Aretxaga, Ibarra, Bolunburu o La Herrera-ijalde), con otros puntos de interés urbanos e industriales como el propio barrio de Sodupe (Güeñes), el centro de Zalla -Mimetiz- o el barrio de Aranguren (Zalla).

La inscripción es gratuita y se ha establecido un tope máximo de 500 personas. Se puede hacer a través del enlace "Inscripciones" de la web del Museo de Las Encartaciones (enkarterrimuseoa.net) o en los teléfonos 946504488 y 946104815.